
ZUHAIZTI GABEKO KALEAK

Goi tentsioko energia elektrikoko garraio azpiegiturek nahita nahiez bete behar dute Goi tentsioko linea elektrikoen baldintza teknikoei, eta bermeei eta segurtasunari buruzko Araudia eta osagarrizko argibide teknikoak. Horiek zehazten dute linea elektrikoaren enpresa arduradunak zuhaitz gabeko “kale” bat mantendu behar duela derrigorrez (azpiegitura motaren araberako ezaugarri zehatzetakoa), zuhaitzek linea elektrikoari arazorik eragitea saihesteko helburuarekin. Horrenbestez, dena delako lurraldeko jabeak nahita nahiez onartu behar du araudiek eskatutako zuhaitzak moztea, inaustea eta sastraka kentzea.

Arau hau, printzipioz, arrazoizkoa dirudi, zuhaitzetako adarrek kableak ukitzeagatik eragin ditzaketen suteak ekidin ditzakeelako, baina zenbait eragozpen ere badu. Esate baterako, hesi-efektua izan dezake, basoa bat-batean eten egiten delako. Neurri honek belarra sortzea eragiten du. Belar hori udan lehortu egingo da, eta ondorioz, arriskutsuago bilakatuko da suterik izanez gero, klima hezearekin eta begetazio berdearekin eduki lezakeen suebaki efektua eragozpen bilakatzen baita, Araban gertatzen den bezala. Babestutako zonaldeetan desegokiak dira ere, bertan begetazioa errespetatu behar delako, berez duen balioarengatik.

Hori dela eta, garrantzitsua da, epe luzera, babestutako gune naturalak gurutzatzen dituzten garraio elektrikoko azpiegitura zaharkituen bidea aldatzeko aukera planteatzea, eta horrez gain, saiatu behar da, azpiegitura berrien proiektuek, ahal den neurrian, babestutako guneetatik ez igarotzen, aipatutako eragozpenez gain, bestelako batzuk ere eragiten dituztelako, besteak beste, erradiazioak isurtzea, ozono kaltetzea, kutsadura estetikoa eragitea, eta abar.



Goi tentsioko bost kale baso batetik igarotzen Erreberagoitiko udalerrian, Paul hiri erakundetik gertu. Iparraldean kokatutakoaren eta hegoaldekoaren artean 2,7 kilometroko tartea dago. 5. zenbakia beheko argazkiaren xehetasunari dagokio.

Ortoargazkia 2015. Iturria: Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco; geoEuskadi.



Goi tentsioko linea bat igarotzen da Erriberagoiti udalerritik. Hain zuzen ere, Puentelarrá (Lantarón) zentral elektrikoa Vitoria-Gasteizeko azpiestazio batekin lotzen du. Kaleak 30 m zabalera du. Ortoargazkian dorre elektrikoak ere ikus daitezke. Ortoargazkia 2009. Iturria: Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco; geoEuskadi. UTM 30N ETRS89 // X: 505404 m // Y: 4737176 m // Z: 882 m.